



MATEMATIKAKO GRADUA

2. MAILAKO IKASLEAREN GIDA (46 TALDEA - EUSKARA)

2023-2024 IKASTURTEA

Edukien taula

1.- Matematikako Graduari buruzko informazioa.....	3
Aurkezpena.....	3
Titulazioaren gaitasunak.....	3
Graduko ikasketen egitura.....	3
Bigarren mailako irakasgaiak graduaren testuinguruan.....	4
Egin beharreko jarduera motak.....	4
Gradu Amaierako Lana (GrAL).....	4
Mugikortasuna.....	4
Kanpoko praktika akademikoak.....	4
Tutoretza akademikoak.....	5
Tutoretza Plana (TP).....	5
Matematika Saileko liburutegia.....	5
Kordinazioa.....	5
Bestelako informazio interesgarria.....	6
2.- Mailari buruzko informazio espezifikoa.....	6
Ikasleen banaketa irakaskuntza taldeetan.....	6
Egutegia, ordutegia eta azterketak.....	6
Irakasleak.....	6
Jarduerak bigarren mailako ikasleentzako.....	7
3.- Ikasturteko irakasgaien irakaskuntza gidak.....	7

Gida hau Matematikako Graduko Ikasketa Batzordeak (MATGIB) egin du

1.- Matematikako Graduari buruzko informazioa

Aurkezpena

Matematikako Graduak ikasketekin matematikako prestakuntza orokorra lortu nahi da, diziplina zientifiko gisa, eta laneko jarduerak egiteko prestakuntza eskuratzera eta hainbat eremutan hartutako trebetasunak aplikatzeko gaitasuna garatzera bideratuta dago. Eremu horiek zientifikoak izan daitezke (haien bi alderdiekin: irakaskuntza eta ikerketa), edo industria, enpresa eta administrazioari goi mailetan aplikatzeari lotutakoak.

Beraz, Matematikan Graduatu tituluaren helburua hainbat eremutako arazoen formulazio matematikoa, analisia, ebazpena eta, kasu batzuetan, tratamendu informatikoa egitea da. Hauek izan daitezke eremu horietako batzuk: oinarrizko zientziak, gizarte eta bizitzako zientziak, ingeniariak, finantzak, aholkularitza, etab.

Titulazioaren gaitasunak

Matematikako Graduak ondorengoetarako gaitzen du:

- T1. Matematika-arloen helburua, metodoak eta baliagarritasuna ezagutzea, eta haien oinarrizko kontzeptuak eta emaitzak zein diren jakitea.
- T2. Matematikaren hainbat arlotako teorema klasiko batzuen frogapen zehatzak ezagutzea.
- T3. Objektu matematikoen, behatutako errealitatearen eta beste eremu batzuen egitura-propietateen abstrakzioa egiten eta noizbehinkako propietate hutsetatik bereizten jakitea, eta testuinguru abstraktu horretan arrazoiketa matematikoa erabiltzen jakitea.
- T4. Matematikako problemak oinarrizko kalkuluko eta bestelako abilezien bidez ebaztea, eta ebazpena eskuragarri dauden tresnen eta denbora- eta baliabide-mugen arabera planifikatzea.
- T5. Eskuratutako ezagutzak eta analisirako eta abstrakziorako gaitasuna problemen definizio eta planteamenduan eta soluzioen bilaketan aplikatzea, testuinguru akademikoetan zein lanbide-testuinguruetan.
- T6. Tresna matematikoen erabilera eskatzen duten problema zientifiko, teknologiko edo beste eremu batzuetakoei buruzko datu, informazio edo emaitza garrantzitsuak bildu eta interpretatzea.
- T7. Esperimentatzeko eta kasu bakoitzerako konputazio-ingurune egokian problema matematikoak ebazteko aplikazio informatikoak erabiltzen jakitea.
- T8. Hizkuntza matematikoa ulertu eta erabiltzea, eta ezagutza, prozedura, emaitza eta ideia matematikoak idatziz zein ahoz komunikatzea.
- T9. Ondorengo ikasketak autonomia-maila handiarekin egiteko beharrezkoak diren ikaskuntza-trebetasunak garatzea.
- T10. Matematikan baliabide bibliografikoak bilatzeko tresnak erabiltzea.

Graduko ikasketen egitura

ECTS kredituak edo kreditu europarrak ikasketan jasotako helburuak lortzeko ikasle bakoitzak egin beharreko ikasketen lanaren bolumen edo zama osoa neurtzen du. ECTS kreditu bakoitza ikaslearen 25 ordu arteko lan zamari dagokio eta horietatik 10 aurrez-aurre egin beharrekoak dira (eskola magistralen, ikasgelako praktiken, ordenagailuko praktiken edo mintegien bidez) eta 15 ordu ikasleak irakasgaietan egin behar dituen lan eta jarduerari dagozkie. Matematikako Graduak 30 kredituko 8 lauhileko izango ditu. Horrela, lau urtetan 240 ECTSak egingo dituzte.

Matematikako Gradua urte osoko edo lauhileko irakasgaietan oinarrituta antolatzen da. Denboraren banaketa 1. taulan laburbilduta dago.

1. Taula: Matematikako Graduko Egitura

	Lehenengo lauhilekoa	Bigarren lauhilekoa
1. maila (60 ECTS oinarrizko irakasgaietan)	Algebra Lineala eta Geometria I (12 ECTS)	
	Fisika Orokorra (12 ECTS)	
	Kalkulu Diferentziala eta Integrala I (12 ECTS)	
	Konputaziorako Sarrera (6 ECTS)	Estatistika Deskribatzailea (6 ECTS)
	Oinarrizko Matematika (6 ECTS)	Programazioaren Oinarriak (6 ECTS)
2. maila (60 ECTS nahitaezko irakasgaietan)	Kalkulu Diferentziala eta Integrala II (15 ECTS)	
	Algebra Lineala eta Geometria II (6 ECTS)	Egitura Aljebraikoak (6 ECTS)
	Matematika Diskretua (6 ECTS)	Kurbak eta Gainazalak (9 ECTS)
	Topologia (6 ECTS)	Probabilitateen Kalkulua (6 ECTS)
Zenbakizko Metodoak I (6 ECTS)		
3. maila	Nahitaezko 9 irakasgai: -Urte osoko irakasgai 1 (12 ECTS) -Lauhileko 8 irakasgai (6 ECTS)	
4. maila	Hautazko 8 irakasgai eta Gradu Amaierako Lana. Bi espezialitate jaso ahal dira: "Matematika Hutsa" eta "Matematika Aplikatua, Estatistika eta Konputazioa"	

Informazio gehiago:

<https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/grado-matematicas>.

Bigarren mailako irakasgaiak graduaren testuinguruan

Bigarren mailatik aurrera, irakasgai guztiak Matematikako Gradurako espezifikokoak dira. Horietako batzuek lehenengo mailako irakasgaiari jarraipen naturala ematen diete, eta gainerakoak matematikako beste adar batzuetakoak dira. Modu horretan, ikasleak espezialitate ezberdinak ikasten hasten dira, Matematika Hutsean nahiz Aplikatuan.

Egin beharreko jarduerak motak

Ikasgelako ikasteko prozesua hainbat jardueraren bidez gauzatzen da: eskola magistralak, ikasgelako praktika taldeak, ordenagailuko praktikak eta mintegiak, ikasleen parte-hartze aktiboaren mailaren arabera.

Ikasturtean zehar, ikasleak irakasgai guztietan hainbat jarduera garatu beharko ditu haren ikaste-prozesuaren barruan. Jarduera hauek irakasgaiaren gidetan modu orokorrean azaltzen dira, eta irakasgai bakoitzari dagokion irakaskuntza-taldeak jarduera horien inguruko informazio zehatzagoa emango du irakasgai garatzeko orduan.

Gradu Amaierako Lana (GrAL)

Gradu Amaierako Lana (GrAL) ikasle bakoitzak zuzendari baten edo gehiagoren gidaritzapean banaka egin behar duen proiektu, memoria edo azterlana da. Lan horretan txertatu eta garatu beharko dira, hain zuzen, graduko ikaskuntza-prozesuan zehar jasotako prestakuntza-edukiak, gaitasunak eta trebetasunak.

GrALari buruzko informazio gehiago:

<https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/trabajos-fin-grado>.

Mugikortasuna

Fakultateak parte hartzen duen mugikortasun programen bidez, ikasleek aukera izango dute lauhileko edo ikasturte oso bat beste unibertsitate batean ikasteko. Bete beharreko baldintzak eta kontuan izan beharreko gainerako informazioa hurrengo estekan ikus daitezke:

<https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/programas-intercambio-alumnado>.

Kanpoko praktika akademikoak

Kanpoko erakundeetan praktikak egiteak aukerak zabaltzen dizkie ikasleei lan-munduan sartzeko, eta ezagutza eta gaitasun praktikoak bereganatzeaz ez ezik, lan-eskarmetua ere eskuratzen dute. Matematikako Graduan kanpoko praktika akademikoak egin daitezke, curriculumetik kanpokoak; hau da, hautazkoak dira. Horiek egiteko, 120 ECTS gainditu behar dira. Informazio gehiago:

<https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/insercion-laboral>.

Tutoretza akademikoak

Tutoretza akademikoa, funtsean, ikasleei aholkularitza eta orientazio akademikoa ematean datza, irakasle baten bidez. Aholkularitza honi esker ikasleak laguntza jasoko du ikasten dituen irakasgaietan. Lauhileko bakoitzaren hasieran irakasle bakoitzak bere tutoretza-ordutegiaren berri emango du.

Tutoretza Plana (TP)

Tutoretza Planaren (TP) bidez ikasleei irakasle tutore bat edukitzeko aukera eskaintzen zaie eta, horrela, unibertsitateko bizitzaren alderdi guztietan integratzea errazagoa izango dute. Horrez gain, irakasle tutore bakoitzak ibilbide akademiko osoan zehar orientatuko ditu bere ikasleak.

Irakasle tutoreen xedeak hurrengo hauek dira:

- Prestakuntza integraleko prozesuan ikasleei laguntzea, ikuspegi akademiko, pertsonal eta profesionalen.
- Ikasleei Fakultatearen jarduera akademikoan integratzen laguntzea.
- Ikasleei unibertsitatean eskuragarri dituzten zerbitzu eta jardueren berri ematea.
- Ikasketa aldian ager daitezkeen zailtasunak identifikatzea eta ikasteko gaitasun eta estrategien garapena erraztea.
- Erabakiak hartzen laguntzea, bereziki curriculum ibilbidea aukeratu behar duenean.
- Ikasleen garapen akademiko eta profesionalerako interesgarria izan daitezkeen informazioa ematea.

Lehenengo mailaren hasieran, irakasle tutore bana esleitzen zaie Matematikako Graduako ikasleei. Esleipen hori indarrean egongo da gradua lortu arte.

Matematika Saileko liburutegia

Matematika Sailak dibulgazio matematikako eta logikako problemei buruzko liburu bilduma du interesdunen eskura.

<https://www.ehu.es/eu/web/departamento-matematicas/biblioteca>

web orrian eskuragarri dauden liburuen zerrenda dago eta horiek maileguan hartzeko eskaera egiteko modua azaltzen da.

Koordinazioa

Gradu Ikasketen Batzordea (GIB) Graduako koordinazioaz arduratzen da, hau da, graduaren curriculumaren garapenez, jarraipenez, errebisioaz eta hobekuntzaz arduratzen dira. Gida hau idazterakoan, honako hauek osatzen dute Matematikako Graduako GIB:

Mota	Koordinatzailea	Kontaktua
Gradua TP	Ana María Valle Martín Matematika Saila	anamaria.valle@ehu.es 946015467 E.P0.19
1. maila	Aingeru Fernández Bertolín Matematika Saila	aingeru.fernandez@ehu.es 946012659 E.P0.9
2. maila	Leticia Hernando Rodríguez Matematika Saila	leticia.hernando@ehu.es 946015459 E.P1.17
3. maila	Txomin Ramirez Alzola Matematika Saila	txomin.ramirez@ehu.es 946015463 E.P1.5
4. maila GrAL	Miren Agurtzane Amparan Larrabaster Matematika Saila	agurtzane.amparan@ehu.es 946015466 E.S1.4

Matematikako Graduako GIBari buruzko informazio gaurkotua hurrengo estekan kontsultatu daiteke: <https://www.ehu.es/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/comisiones-grado#GradulkasketenBatzor8>.

Gainera, graduako irakasgai bakoitzerako koordinatzaile bat izendatu da, zeina irakasgai hura ematen duen irakasle-taldea koordinatzeaz arduratuko baita. Matematikako Graduako irakasgaietako koordinatzaileak hurrengo estekan kontsultatu daitezke:

<https://www.ehu.es/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/coordinacion-asignaturas-mat>.

Bestelako informazio interesgarria

Graduko zenbait irakasgaitan, irakasleek ikasgela birtuala erabiltzen dute irakaskuntza presentzialaren osagarri gisa. Ikasgela horiek eGelan daude (<https://egela.ehu.eus>). EGelan sartzeko LDAP erabiltzaile-izena eta pasahitza behar dira, ikasle bakoitzari esleitzen zaiona ikasle berriko matrikula egitean. LDAP erabiltzaile-izena eta pasahitza ere GAUREn sartzeko erabiltzen da, zeina administrazio tramiteak eta ikasleen bizitza akademikoari lotutako datuak kontsultatzeko erabiltzen den erreminta informatikoa baita.

Matematikako Graduan matrikulatutako ikasle bakoitzak posta elektronikoko korporatibo propioa dauka; kasu honetan ere, ikasle berriko matrikula egitean helbidea eta pasahitza esleitzen zaio ikasle bakoitzari. Helbide honetara iristen dira irakasleek, eGelak, dekanotza taldeak eta unibertsitateko bestelako estamentuek bidalitako mezuak. Helbide honetara iristen diren mezuak posta elektronikoko pertsonalera birbideratu daitezke. Informazio gehiago hurrengo estekan: https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/bbc_alumnado. Partekatutako fitxategi gordailu-zerbitzua ere badago <https://www.ehu.eus/eu/group/ikt-tic/bildu>.

Posta korporatiboaren erabilerari edo UPV/EHUko zerbitzu informatikoei lotutako edozein zalantza edo arazo izanez gero, gomendagarria da EAZrekin (Erabiltzailearentzako Arreta Zerbitzua) kontaktatzea <https://lagun.ehu.eus> web orriaren bidez, LDAP erabiltzaile-izena eta pasahitza erabiliz. EAZri buruzko informazio gehiago <https://www.ehu.eus/eu/web/ikt-tic/eaz-cau> estekan aurkitu daiteke.

Zientzia eta Teknologia Fakultateko Ikaslearentzako Arreta Zerbitzuak (ZTFIAZ) aholku ematen die ikasleei, eta enpresetako praktiketan zein akademia-elkartruke programetan parte hartzeko beharrezko izapideez ere arduratzen da. Fakultateko Idazkaritzan kokatuta dago. ZTFIAZri buruzko informazio gehiago <https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/atencion-estudiantes> estekan aurkitu daiteke.

Matematikako Graduari buruzko informazio gehiago:

<https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/grado-matematicas>.

Fakultateko web orria:

<https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea>.

2.- Mailari buruzko informazio espezifiko

Bigarren mailan, ikasleek "Egitura Aljebraikoak", "Matematika Diskretua", "Probabilitateen Kalkulua" eta "Zenbakizko Metodoak I" irakasgaiak ingelesez edo euskaraz ikasi ahal dituzte. Irakasgai hauek ingelesez eta euskaraz ordutegi berdina dute. Gomendatzen da ingeleseko B2 maila izatea gutxienez irakasgai hauek ingelesez egin nahi izanez gero, irakasgaia ondo jarraitu eta ulertu ahal izateko.

Ikasleen banaketa irakaskuntza taldeetan

Irakasgai batean talde bat baino gehiago dagoen kasuetan, ikasleei bere taldea zein den jakinaraziko zaie lauhileko bakoitzeko lehen asteetan zehar.

Egutegia, ordutegia eta azterketak

Ikastegiko eskola-egutegia webgune honetan kontsultatu daiteke: <https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/calendario>.

Ordutegi ofiziala, jarduera bakoitza emango den ikasgelen inguruko informazioa eta azterketen egutegi ofiziala Fakultateko web-orrian argitaratu eta eguneratuko dira. Hurrengo estekan kontsultatu daitezke: <https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/egutegia-ordutegiak>. Horrez gain, aurreko estekan graduko ikasgaietarako izendatutako 5. eta 6. deialdiko tribunalak kontsultatu daitezke.

Irakasleak

Talde honetako irakasgaietako mota desberdinak (teoria, mintegiak, ...) ematen dituzten irakasleen informazioa (harremanetarako datuak, tutoretza-orduak) ondoko estekan aurki daiteke:

<https://www.ehu.eus/eu/matematikako-gradua/irakasleak>

Irakasle batek aurreko estekan duen informazioa eskuratzeko, nahikoa da haren izenean klik egitea.

Jarduerak bigarren mailako ikasleentzako

Matematikako graduko bigarren mailako ikasleek bilaketa bibliografikoak egiteko tresnen inguruko formakuntza ikastaro bat jasoko dute UPV/EHUko Liburutegi Nagusian.

3.- Ikasturteko irakasgaien irakaskuntza gidak

Gidak ordena alfabetikoaren arabera ordenatuta daude. Gida bakoitza irakasgaia emango den hizkuntzan agertzen da.

COURSE GUIDE

2023/24

Faculty

310 - Faculty of Science and Technology

Cycle

.

Degree

GMATEM31 - Bachelor's Degree in Mathematics

Year

Second year

COURSE

26684 - Algebraic Structures

Credits, ECTS:

6

COURSE DESCRIPTION

This course is an introduction to the main algebraic structures (groups, rings and fields) that, together with vector spaces (studied in the courses Linear Algebra I and II in the first and second year of the degree, respectively) are the foundations of Algebra, that will be studied more deeply in future courses (Commutative Algebra, Algebraic Equations, Groups and Representations, etc.).

COMPETENCIES/LEARNING RESULTS FOR THE SUBJECT

SPECIFIC COMPETENCES

M01CM01 Understand what an abstract group is from known examples of groups in other courses: groups of numbers, residue classes, matrices, etc.

M01CM02 Know the basic concepts in group theory (subgroups, normal subgroups, factor groups, homomorphisms,...).

M01CM03 Know how to operate with elements in some important groups (cyclic groups, direct products, permutation groups,...) and their main properties.

M01CM04 Understand the basic concepts in the theory of rings and fields (subrings, ideals, quotients, homomorphisms, field characteristic, field of fractions,...).

M01CM05 Understand the properties of divisibility of univariate polynomials and, in particular, the use of the main irreducibility criteria.

LEARNING RESULTS

To know the basic concepts of group theory (subgroups, normal subgroups, quotients, homomorphisms ...) and the properties of the most important groups (cyclic, direct products, dihedral, symmetric, ...).

To know the basic concepts of the theory of rings and fields and, in particular, of the rings of polynomials in one and several indeterminates.

CONTENIDOS TEÓRICO-PRÁCTICOS

1. GROUPS. FUNDAMENTALS: Concept of group. Examples (groups of numbers, Z/nZ and its units, groups of matrices, groups of symmetries,...). Subgroups. Subgroup generated by a set. Cosets and index of a subgroup. Lagrange's Theorem. Products of subgroups. The order of an element. Cyclic groups.
2. NORMAL SUBGROUPS AND GROUP QUOTIENTS: Conjugacy and its properties. Normal subgroups. Construction of group quotients. Subgroups of a group quotient.
3. GROUP HOMOMORPHISMS: Group homomorphisms. The kernel and the image of a group homomorphism. Isomorphic groups. The Isomorphism Theorems.
4. CYCLIC AND ABELIAN GROUPS: The subgroups of a cyclic group. Direct products. Classification of the abelian finite groups. Classification of some groups of small order.
5. THE SYMMETRIC GROUP: Permutations, decomposition in disjoint cycles. Signature. The symmetric and alternating groups. Conjugacy in the symmetric group. Cayley's Theorem. Simplicity of the alternating groups.
6. RINGS AND FIELDS: Rings and fields, first properties. Characteristic and prime field. Integral domains. The field of fractions of an integral domain. Subrings, ideals and ring homomorphisms. Maximal ideals and fields. The Chinese Remainder Theorem.
7. UNIVARIATE POLYNOMIALS: Factorization of univariate polynomials. Irreducibility criteria. Quotients of polynomial rings. Finite fields.

TEACHING METHODS

Masterclasses, seminars and problem sessions. Students must participate actively in class solving the proposed problems.

TYPES OF TEACHING

Types of teaching	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Hours of face-to-face teaching	36	6	18						
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	54	9	27						

Legend: M: Lecture-based S: Seminar GA: Applied classroom-based groups
GL: Applied laboratory-based groups GO: Applied computer-based groups GCL: Applied clinical-based groups
TA: Workshop TI: Industrial workshop GCA: Applied fieldwork groups

Evaluation methods

- End-of-course evaluation

Evaluation tools and percentages of final mark

- Ver Orientaciones. 100%

ORDINARY EXAMINATION PERIOD: GUIDELINES AND OPTING OUT

There will be two written exams: one partial and one final. The final mark will take into account the student's attitude in his/her learning process. It will be calculated averaging the marks in the different activities according to the following weights:

- 60-80% final written exam.
 - 10% partial written exam.
 - 10-30% classroom work and individual or group homework.
- To pass the course a mark of at least 4 points out of 10 in the final exam is required.

EXTRAORDINARY EXAMINATION PERIOD: GUIDELINES AND OPTING OUT

- 100% final written exam.

MANDATORY MATERIALS

None.

BIBLIOGRAFÍA

Basic bibliography

- J.D. DIXON, Problems in Group Theory. Dover, 1973.
S. LANG, Undergraduate Algebra, 2nd ed. Springer, New York, 2001.
G. NAVARRO, Un curso de álgebra. Universidad de Valencia, 2002.
A. VERA; F. VERA, Introducción al Álgebra, I. Ellacuría, Bilbao, 1984.
A. VERA; F. VERA, Aljebraarako Sarrera, I. Ellacuría, 1991.
A. VERA; J. VERA, Problemas de Álgebra, I: Teorías de Grupos y de Cuerpos. AVL, 1995.

Detailed bibliography

- J. F. HUMPHREYS, A Course in Group Theory. Oxford University Press, 1996.
I. M. ISAACS, Algebra. A Graduate Course. Brooks/Cole Publishing Company, Pacific Grove, California, 1994.
H. KURZWEIL; B. Stellmacher, The Theory of Finite Groups. An Introduction. Universitext, Springer, New York, 2004.
J.S. ROSE, A course on Group Theory. Cambridge University Press, 1978.

Journals

This is an introductory course, so no periodic publication is recommended.

Web sites of interest

- <http://mathworld.wolfram.com/topics/GroupTheory.html>
http://www-groups.dcs.st-and.ac.uk/~history/HistTopics/Development_group_theory.html
<http://www.springerlink.com/content/u503q3/>

OBSERVATIONS

IRAKASKUNTZA-GIDA

2023/24

Ikastegia 310 - Zientzia eta Teknologia Fakultatea**Zikl.** Zehaztugabea**Plana** GMATEM31 - Matematikako Gradua**Ikastaroa** 2. maila**IRAKASGAIA**

26666 - Aljebra Lineala eta Geometria II

ECTS kredituak: 6**IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA**

Irakasgai hau modulu berean dagoen Aljebra Lineala eta Geometria I irakasgaiaren jarraipena da eta helburu bera du: Aljebra linealaren eta Geometria afin eta euklideararen oinarriko kontzeptuak ezagutzea eta horiek erabiltzea problema linealak matrizeen bidez ebazteko eta plano eta espazioko problema geometrikoak ebazteko. Lehenengo mailako irakasgaiaren ikusitako zenbait ataletan gehiago sakonduko dugu (forma kanonikoak, geometria afin eta euklidearra eta konika eta koadrikak) eta beste zenbait eraikuntza aljebraiko eta geometria berri ere ikusiko ditugu. Bi irakasgai hauetan landutako edukiak graduoko beste hainbat irakasgaietan ere erabiliko dira.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK**GAITASUN ESPEZIFIKOAK**

- M16CM03 - Espazio bektorialaren eta horri lotutako oinarriko kontzeptu abstraktoak ulertzea (aspiespazio eta zatidura espazioak, oinarriak, sistema sortzaileak, aplikazio afinak).
- M16CM04 - Matrizeak diagonalizatzen ikastea eta matrize baten Jordan-en forma kanonikoa lortzeko gai izatea.
- M16CM05 - Espazio euklidearrean bektore multzo bat ortogonalizatzen jakitea.
- M16CM06 - Forma koadratikoak diagonalizatzen jakitea.
- M16CM07 - Puntu, bektore, distantzia eta angeluekin eragiketak egitea espazio afin eta euklidearrean.
- M16CM08 - Erreferentzia sistemak, azpiespazioak eta transformazio afinak modu egokian erabiltzea.
- M16CM09 - Ebatzi, modu egokian, plano eta espazioko problema geometrikoak.
- M16CM10 - Plano eta espazioko isometriak sailkatzea horien mota eta berezko elementuak zehaztuz.
- M16CM11 - Geometria afin, euklidear eta proiektiboaren oinarriak ulertzea.
- M16CM12 - Homografia mota nagusiak ezagutzea.
- M16CM13 - Konika eta koadrikak sailkatzen jakitea eta horien elementu nagusiak kalkulatzeko gai izatea.

IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

- Matrize baten diagonalizatzen jakitea eta bere Jordanen forma kalkulatzeko jakitea.
- Espazio euklidear bateko bektore sistema ortogonalizatzen jakitea.
- Forma koadratiko bat diagonalizatzen jakitea.
- Espazio afin eta euklidearretan puntu, bektore, distantzia eta angeluekin eragiketak egiten jakitea
- Erreferentzia sistemak, azpiespazioak eta transformazio afinak modu egokian erabiltzea.
- Planoko eta espazioko isometriak sailkatzea bere mota eta elementu nagusiak zehaztuz.
- Homografia mota nagusiak ezagutzea.
- Konika eta koadrikak sailkatzen jakitea eta horien elementu nagusiak kalkulatzeko gai izatea.
- Planoko eta espazioko problema geometrikoak modu egokian ebazteko gai izatea.
- Geometria bakoitzari dagozkion kalkulu-metodoak erabiltzen jakitea.

CONTENIDOS TEÓRICO-PRÁCTICOS

1. ZATIDURA ESPAZIO BEKTORIALAK: Zatidura espazio bektorialak. Oinarriak eta dimentsioa. Isomorfiari buruzko teorema espazio bektorialetarako.
2. TRIANGULARIZAZIOA ETA JORDAN-EN FORMA KANONIKOA: Endomorfismo eta matrize triangulagarriak. Oinarriko azpiespazio orokortuak. Jordan-en forma kanonikoaren lorbidea. Cayley-Hamilton-en teorema. Polinomio minimoa.
3. ESPAZIO DUALA: Espazio duala. Oinarri dualak. Aplikazio duala. Ortogonalitasuna.
4. ESPAZIO AFIN EUKLIDEARRAK: Espazio euklidearrak: ortogonalitasuna eta dualitasuna. Espazio afinak. Azpiespazio afinak. Erreferentzi sistema afinak. Koordenatu barizentrikoak. Konbexutasuna. Aplikazio afinak. Espazio afin euklidearrak. Azpiespazio afin ortogonalak. Isometriak sailkapena.
5. ESPAZIO PROIEKTIBOAK: Espazio proiektiboak. Koordenatu homogeneoak. Azpiespazio proiektiboak. Espazio proiektibo duala. Homografiak. Puntu eta hiperplano bikoitzak. Oinarriko homografia-motak.
6. KONIKAK ETA KOADRIKAK: Konika eta koadriken sailkapen afina, proiektiboa eta metrikoa. Sortak.

METODOLOGIA

Eduki teorikoa eskola magistralen bidez azalduko da, horretarako bibliografian eta nahitaezko materialean ageri diren oinarriko erreferentziak erabiliko direlarik. Eskola magistral horien osagarri gisa ariketa-eskolak erabiliko dira. Horietan, eskola teorikoetan landutako edukien alde praktikoa jorratuko da. Azkenik, mintegietan irakasgai honetako zenbait adibide edota ariketa adierazgarri izango dira eztabaidagai. Mintegian zehar izango den hausnarketa eta eztabaida aberatsagoa izan dadin, ariketa horiek ikasleei alde aurretik proposatuko zaizkie mintegiaren egunerako landuta ekartzeko.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	36	6	18						
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	54	9	27						

Legenda: M: Magistrala S: Mintegia GA: Gelako p.
GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p. GCL: P. klinikoak
TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Ikusi ORIENTAZIOAK % 100

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Bukaerako idatzizko azterketa: %80-%100
Banakako edo/eta taldekako lanak: 0-%20

Ikasleren batek ebaluazio jarraituari uko egiten badio, ohiko deialdiko azken azterketa idatziak %100 balioko du.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ohiko deialdiko portzentai berak. Banakako edo/eta taldekako lanen atala gaudituta ez duten ikasleen kasuan, ez-ohiko deialdiko kalifikazioaren %100 azterketaren nota izango da. Era berean, ikasleren batek ebaluazio jarraituari uko egiten badio, ezohiko deialdiko azken azterketa idatziak %100 balioko du.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

BIBLIOGRAFÍA

Oinarrizko bibliografia

M. CASTELLET e I. LLERENA, Álgebra Lineal y Geometría, Reverté, 2000.
I.M. GUELFAND, Lecciones de Álgebra Lineal, Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco, 1986.
E. HERNÁNDEZ, Álgebra y Geometría, Addison Wesley, 1999.
J. IKRAMOV, Problemas de Álgebra Lineal, Mir, 1990.
I.V. PROSKURIAKOV, Problemas de Álgebra Lineal, Mir, 1986.

Gehiago sakontzeko bibliografia

W. H. GREUB, Linear Algebra, Springer-Verlag, 1981.
S. LANG, Linear Algebra 3rd. ed., Springer-Verlag, 1987.
R. H. WASSERMAN. Tensors & Manifolds, Oxford University Press, 1992.

Aldizkariak

Interneteko helbide interesgarriak

OHARRAK

COURSE GUIDE

2023/24

Faculty

310 - Faculty of Science and Technology

Cycle

.

Degree

GMATEM31 - Bachelor's Degree in Mathematics

Year

Second year

COURSE

26011 - Discrete Mathematics

Credits, ECTS: 6**COURSE DESCRIPTION**

The objective of this course is to learn the basic elements of mathematics and how to use the mathematical language as well as the techniques for proving and solving problems. This course goes deeply into combinatorial aspects started in the first year course Matemáticas Básicas and is a basis for the second year course Cálculo de Probabilidades. Some of the concepts introduced, such as recurrences and graphs, are used later in the third and fourth year courses Métodos Numéricos II and Programación Matemática.

COMPETENCIES/LEARNING RESULTS FOR THE SUBJECT**COMPETENCES**

M06CM01 - To be familiarized with the main types of mathematical proof and with the techniques of solving problems (observation-conjecture-proof).

M06CM06 - To know how to solve combinatorial problems using basic techniques, generating functions and recurrence relations.

M06CM07 - To be familiarized with combinatorial identities and the main families of numbers with combinatorial meaning.

M06CM08 - To know the concepts, techniques and basic results of the graph theory and to be familiarized with some of its multiple applications.

LEARNING RESULTS

To know how to solve combinatorial problems with a certain degree of complexity.

To be familiarized with families of numbers that are present in many areas of Mathematics.

To use skillfully combinatorial expressions and identities, inequalities, recurrence relations and generating functions.

To be familiarized with graphs, their main properties, and some of their multiple applications.

CONTENIDOS TEÓRICO-PRÁCTICOS

1. BASIC COMBINATORICS: Basic resources in the combinatorial reasoning. The principle of inclusion and exclusion. The pigeonhole principle.

2. COMBINATORIAL IDENTITIES: Binomial and multinomial coefficients. Binomial and multinomial formulae. Related identities.

3. GENERATING FUNCTIONS AND RECURRENCE RELATIONS: Generating function of a sequence of numbers. Applications to combinatorial problems. Recurrence relations and combinatorial problems. Recurrence relations and generating functions. Obtaining the general term.

4. MAIN FAMILIES OF NUMBERS: Numbers of Fibonacci. Numbers of Catalan. Numbers of Bell. Numbers of Stirling. Partitions of natural numbers.

5. GRAPHS: Basic concepts. Paths. Trees. Planar graphs. Coloring.

TEACHING METHODS

In the M classes the theoretical contents will be developed.

In the S classes the students will work and present problems and tasks.

In the GA classes exercises will be solved.

TYPES OF TEACHING

Types of teaching	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Hours of face-to-face teaching	36	6	18						
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	54	9	27						

Legend: M: Lecture-based

S: Seminar

GA: Applied classroom-based groups

GL: Applied laboratory-based groups

GO: Applied computer-based groups

GCL: Applied clinical-based groups

TA: Workshop

TI: Industrial workshop

GCA: Applied fieldwork groups

Evaluation methods

- Continuous evaluation
- End-of-course evaluation

Evaluation tools and percentages of final mark

- See GUIDELINES 100%

ORDINARY EXAMINATION PERIOD: GUIDELINES AND OPTING OUT**GUIDELINES**

Final exam (70%), partial test (15%), and preparing and presenting tasks (15%).

The minimum grade required to pass is 5 points (over 10) provided that at least 4 points (over 10) are gotten in the final exam (compulsory).

WITHDRAWAL OF CONTINUOUS ASSESSMENT SYSTEM

The student must give written notice of withdrawal of continuous assessment system in a period of 9 weeks since the beginning of the course. In this case, the final grade will be the grade of the exam (100%) and at least 5 points (over 10) are required to pass.

DECLINING TO SIT

A student who does not take the final exam will obtain <<no presentado>>.

EXTRAORDINARY EXAMINATION PERIOD: GUIDELINES AND OPTING OUT

GUIDELINES

In the case of continuous assessment:

The grade obtained in the exercises and tasks will be kept, when advantageous to the student. Grades will never be kept from one year to another. The minimum grade required to pass is 5 points (over 10) provided that at least 4 points (over 10) are gotten in the final exam (compulsory).

In the case of end-of-course assessment:

The final grade will be the grade of the exam (100%) and at least 5 points (over 10) are required to pass.

DECLINING TO SIT

A student who does not take the final exam will obtain <<no presentado>>.

MANDATORY MATERIALS

The recommended materials will be available at the virtual platform.

BIBLIOGRAFÍA

Basic bibliography

D.I.A. COHEN, Basic Techniques of Combinatorial Theory, Wiley, New York, 1978.

J.M. HARRIS, J.L. HIRST, M.J. MOSSINGHOFF, Combinatorics and Graph Theory, Springer, New York, 2008.

N. HARTSFIELD, G. RINGEL, Pearls in Graph Theory, Dover, New York, 1994.

R.L. GRAHAM, D.E. KNUTH, O. PATASHNIK, Concrete Mathematics, Addison-Wesley, Reading, Mass., 1994.

Detailed bibliography

V.K. BALAKRISHNAN, Combinatorics, Schaum's Outline Series, McGraw-Hill, 1995.

R.C. BOSE, B. MANVEL. Introduction to Combinatorial Theory, Wiley, New York, 1984.

F. GARCIA MERAYO, Matemática Discreta, Paraninfo, Madrid, 2001.

J. HEBER NIETO SAID, Teoría Combinatoria. La Universidad del Zulia, 1996. <http://www.jhnieto.org/tc.pdf>

D.A. MARCUS, Combinatorics: A Problem Oriented Approach, The Mathematical Association of America, 1998.

R. J. TRUDEAU, Introduction to Graph Theory, Dover Publications, Inc, Nueva York, 1993.

N. Ya. VILENKIN, Combinatorics, Academic Press, New York, 1971.

H.S. WILF, Generatingfunctionology, Academic Press, Boston, 1990. <http://www.math.upenn.edu/~wilf/gfology2.pdf>

Journals

The Electronic Journal of Combinatorics <http://www.combinatorics.org/>

The Fibonacci Quarterly <http://www.fq.math.ca/>

Web sites of interest

Combinatorics <http://mathworld.wolfram.com/topics/Combinatorics.html>

Pascal triangle http://en.wikipedia.org/wiki/Pascal%27s_triangle

Pigeon principle http://www.cut-the-knot.org/do_you_know/pigeon.shtml

Fibonacci numbers <http://www.maths.surrey.ac.uk/hosted-sites/R.Knott/Fibonacci/>

Catalan numbers <http://mathforum.org/advanced/robertd/catalan.html>

Stirling Number of the First Kind <http://mathworld.wolfram.com/StirlingNumberoftheFirstKind.html>

Stirling Number of the Second Kind <http://mathworld.wolfram.com/StirlingNumberoftheSecondKind.html>

The Encyclopedia of Integer Sequences <http://oeis.org/>

Graphs http://en.wikipedia.org/wiki/Graph_theory

OBSERVATIONS

IRAKASKUNTZA-GIDA

2023/24

Ikastegia 310 - Zientzia eta Teknologia Fakultatea**Zikl.** Zehaztu gabea**Plana** GMATEM31 - Matematikako Gradua**Ikastaroa** 2. maila**IRAKASGAIA**

26684 - Egitura Aljebraikoak

ECTS kredituak: 6**IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA**

Funtsezkoak diren (taldeak, eraztunak eta gorputzak) egitura aljebraikoei dagokien sarrerako irakasgaia da hau. Aipatutako egitura aljebraiko horiek, lehenengo eta bigarren mailan ikasitako espazio bektorialen egiturekin batera (Algebra I eta Algebra II irakasgaietan ikasitakoak, hurrenez hurren), Aljbraren oinarriak eta fundamentuak osatzen dituzte. Aljbrako oinarri horiek, hurrengoko urteetan eskainiko diren, Algebra Trukakorra, Ekuazio Aljebraikoak, Taldeak eta Adierazpenak, etabar irakasgaietan sakonduko dira ere.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK**GAITASUN ESPEZIFIKOAK**

M01CM01 Taldearen kontzeptua ulertzea, beste irakasgai batzuetan ikusitako adibideetan oinarrituz: zenbaki-taldeak, hondar-klaseen taldeak, matrize-taldeak, etabar.

M01CM02 Talde-teoriaren oinarritzko kontzeptuak (azpitaldeak, azpitalde normalak, zatidura-taldeak, homomorfismoak,...) ezagutzea.

M01CM03 Talde-mota garrantzitsu batzuetan (talde ziklikoak, biderkadura zuzenak, talde simetrikoak,...) lan egiten jakitea eta haien propietate nagusiak ezagutzea.

M01CM04 Eraztun-teoriaren eta gorputz-teoriaren oinarritzko kontzeptuak (azpieraztunak, idealak, zatidura-eraztunak, homomorfismoak, karakteristika, zatikien gorputzak,...) ezagutzea.

M01CM05 Indeterminatu bateko polinomioen zatigarritasun-propietateak ezagutzea eta, bereziki, irreduzibilitaterako irizpide nagusiak aplikatzen jakitea.

IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

Talde teoriaren oinarritzko kontzeptuak (azpitaldeak, azpitalde normalak, zatidurak, homomorfismoak ...), eta talde garrantzitsuen (talde ziklikoen, biderkadura zuzenen, talde diedrikoen, talde simetrikoen,...) propietateak ezagutzea.

Eraztunen eta gorputzen teoriaren oinarritzko kontzeptuak ezagutzea, eta bereziki, ezezagun bateko edo gehiagoko polinomioen eraztunen oinarritzko kontzeptuak ezagutzea.

CONTENIDOS TEÓRICO-PRÁCTICOS

1. TALDEAK. OROKORTASUNAK: Taldearen kontzeptua. Adibideak (zenbaki-taldeak, Z/nZ eta haren unitateak, matrize-taldeak, simetria-taldeak,...). Azpitaldeak. Azpimultzo batek sortutako azpitaldea. Koklaseak eta azpitalde baten indizea. Lagrangeren teorema. Azpitaldeen biderkadura. Elementu baten ordena. Talde ziklikoak.
2. AZPITALDE NORMALAK ETA ZATIDURA-TALDEAK: Konjugazioa eta haren propietateak. Azpitalde normalak. Zatidura-taldearen eraikuntza. Zatidura-taldearen azpitaldeak.
3. TALDE-HOMOMORFISMOAK: Talde-homomorfismoak. Homomorfismo baten nukleoa eta irudia. Talde isomorfoak. Isomorfia-teoremak.
4. TALDE ZIKLIKOAK ETA ABELDARRAK: Talde ziklikoen azpitaldeak. Biderkadura zuzenak. Talde abeldar finituen sailkapena. Ordena txikiko talde batzuen sailkapena.
5. TALDE SIMETRIKOA: Permutazioak, ziklo disjuntuetako deskonposizioa. Signatura. Talde simetrikoa eta talde alternatua. Konjugazioa talde simetrikoan. Cayleyren teorema. Talde alternatuen bakuntasuna.
6. ERAZTUNAK ETA GORPUTZAK: Eraztunak eta gorputzak, lehenengo propietateak. Karakteristika eta azpigorputz lehena. Integritate-domeinuak. Integritate-domeinu baten zatikien gorputza. Azpieraztunak, idealak eta eraztun-homomorfismoak. Ideal maximalak eta gorputzak. Hondarren teorema txinatarrak.
7. INDETERMINATU BATEKO POLINOMIOAK: Indeterminatu bateko polinomioen faktORIZAZIOA. Irreduzibilitaterako irizpideak. Polinomioen eraztunen zatidurak. Gorputz finituak.

METODOLOGIA

Klase magistralak, mintegiak eta ariketa-klaseak. Ikasleek modu aktiboan parte hartu beharko dute ariketa-klaseetan, proposatutako problemak ebatziz.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	36	6	18						
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	54	9	27						

Legenda: M: Magistrala S: Mintegia GA: Gelako p.
GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p. GCL: P. klinikoak
TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Ikus Orientazioak. % 100

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Bi idatzizko proba egongo dira, bat partziala, eta bestea finala. Azken notan ikasle bakoitzaren interesa eta jarrera kontuan hartuko dira. Irakasgaiaren azken nota egindako ekintza guztien batuketa ponderatu bat da.

- Idatzizko azterketa finala (notaren %60-80)
 - Idatzizko azterketa partziala (notaren %10)
 - Gelako praktikak, banakako lanak eta/edo taldekako lanak (notaren %10-30)
- Irakasgaia gainditu ahal izateko, ezinbestekoa da azterketa finalean gutxienez 4 puntu ateratzea 10ren gainean.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

- Idatzizko azterketa finala (notaren %100)

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Ez dago.

BIBLIOGRAFÍA

Oinarrizko bibliografia

- J.D. DIXON, Problems in Group Theory. Dover, 1973.
S. LANG, Undergraduate Algebra, 2nd ed. Springer, New York, 2001.
G. NAVARRO, Un curso de álgebra. Universidad de Valencia, 2002.
A. VERA; F. VERA, Introducción al Álgebra, I. Ellacuría, Bilbao, 1984.
A. VERA; F. VERA, Aljebraarako Sarrera, I. Ellacuría, 1991.
A. VERA; J. VERA, Problemas de Álgebra, I: Teorías de Grupos y de Cuerpos. AVL, 1995.

Gehiago sakontzeko bibliografia

- J. F. HUMPHREYS, A Course in Group Theory. Oxford University Press, 1996.
I. M. ISAACS, Algebra. A Graduate Course. Brooks/Cole Publishing Company, Pacific Grove, California, 1994.
H. KURZWEIL; B. Stellmacher, The Theory of Finite Groups. An Introduction. Universitext, Springer, New York, 2004.
J.S. ROSE, A course on Group Theory. Cambridge University Press, 1978.

Aldizkariak

Gai batzuen sarrerako kurtsoa dela eta, ez dira argitalpen periodikorik aholkatzen.

Interneteko helbide interesgarriak

- <http://mathworld.wolfram.com/topics/GroupTheory.html>
http://www-groups.dcs.st-and.ac.uk/~history/HistTopics/Development_group_theory.html
<http://www.springerlink.com/content/u503q3/>

OHARRAK

IRAKASKUNTZA-GIDA

2023/24

Ikastegia 310 - Zientzia eta Teknologia Fakultatea**Zikl.** Zehaztugabea**Plana** GMATEM31 - Matematikako Gradua**Ikastaroa** 2. maila**IRAKASGAIA**

26663 - Kalkulu Diferentziala eta Integrala II

ECTS kredituak: 15**IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA**

Irakasgaiak aurkezten ditu, era sistematikoan, aldagai anitzeko kalkulu diferentzial eta integralaren kontzeptuak, teknikak eta oinarrizko aplikazioak. Kalkulu Diferentziala eta Integrala I irakasgaiaren jarraipena da. Irakasgai hau, Kalkulu Diferentziala eta Integrala I eta Analisi Konplexuarekin batera Analisi-modulua osatzen dute. Modulu honen helburua da ikasleak materia hauen oinarrizko prestakuntza horizontal bat lortzea, elkarrekin erlazionatutako norabide anizkuntetako ezaguerak eta trebetasunak ulertzea eta aplikatzea baimenduz, bereziki materietan zeinetarako Analisi Matematikoa funtsezko erreminta den: Ekuazio Diferentzialak, Deribatu Partzialetako Ekuazioak eta Zenbakizko Metodoak.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK**KOMPETENTZIA ESPEZIFIKOAK**

- M15CM10: Espazio euklidiar n-dimentsionalaren oinarrizko kontzeptu metriko eta topologikoak ulertzea.
- M15CM11: Aldagai anitzeko funtzioen jarraitutasun eta diferentziagarritasunaren kontzeptuak ulertzea.
- M15CM12: Aldagai anitzeko funtzioen deribatu, deribatu partzial, norabide-deribatu eta katearen erregelaren kalkulu-teknikak jakitea.
- M15CM13: Funtzio implizituaren eta alderantzizko funtzioaren teorema kalkulu desberdinetan aplikatzen jakitea.
- M15CM14: Aldagai anitzeko funtzioen muturren (absolutu eta erlatiboak) kalkuluaren teknikak ezagutzea.
- M15CM15: Aldagai anitzeko funtzioen Riemann-en integralak, lerro-integralak eta gainazal-integralak planteatzen eta ebazten jakitea, haien aplikazio geometriko eta fisikoak ezagutzuz.
- M15CM16: Teorema bektorialen esanahi geometriko eta fisikoak ezagutzea, lerro-integral eta gainazal-integralen kalkulurako.
- M15CM17: Oinarrizko funtzioen Fourier-en serieak kalkulatzeko, eta bere ezaugarriak eta konbergentziaren moduak ezagutzea.

IKASKETA-EMAITZAK

- Funtzio-segida eta funtzio-serieen propietateak erabili, konbergentzia eta bornaketaren kontzeptuak erlazionatu.
- Integral anizkoitzak, lerro-integralak eta gainazal-integralak kalkulatu eta kalkulu integralaren teorema erabili trebetasunaz.
- Kalkulu diferentzial eta integralaren bitartez ariketa geometriko (funtzioen grafikoak, luzerak, azalerak, bolumenak) eta fisikoak (grabitrate-zentroak, masa, inertzia-momentuak) planteatu eta ebatzi.

CONTENIDOS TEÓRICO-PRÁCTICOS

1. ESPAZIO EUKLIDIARRAK: Biderkaketa eskalarra, norma, Cauchy-Schwarzen desberdintza. Cantor, Bolzano eta Heine-Borelen teorema. Segidak \mathbb{R}^n -n, konbergentzia, Bolzano-Weierstrassen teorema, Cauchyren segidak, Cauchyren teorema.
2. FUNTZIO JARRAITUAK: funtzioak \mathbb{R}^n -n, grafikoak, maila-lerroak, limiteak, limite norabidetuak, limite iteratuak. Funtzio jarraituak, oinarrizko propietateak. Funtzio linealak, karakterizazio matritziala. Jarraitutasuna. Norma $L(\mathbb{R}^n, \mathbb{R}^m)$ -n. Jarraitutasunaren propietate orokorrak, trinkotasun eta konexioaren kontserbazioa. Alderantzizkoaren jarraitutasuna, jarraitutasun uniformeak.
3. DIFERENTZIAZIOA: deribatu norabidetuak eta partzialak, matrize jakobiarra, diferentzialaren existentziarako baldintzak, katearen erregela. Batezbesteko balioen teorema. Ordena goreneko deribatu partzialak, hessiarra, Taylorren polinomioa. Alderantzizko funtzioaren teorema, funtzio implizituaren teorema, parametrizazio eta heinaren teorema. Muturrak eta mutur baldintzatuak: Lagrangeren biderkatzaileak.
4. FUNTZIO-SEGIDAK ETA SERIEAK: Konbergentzia puntuala eta uniformeak, norma uniformeak, Cauchyren irizpidea, Weierstrassen irizpidea, funtzio jarraituen segidak. Hurbilketaren teorema: Bernstein, Weierstrass, Stone-Weierstrass. Ascoli-Arzelàren teorema.
5. INTEGRAZIOA: Riemannen baturak, integralaren definizioa, Zero edukia eta zero neurria, Cauchyren irizpidea, integralaren existentzia, edukia eta integrala, batezbesteko balioaren teorema.
6. FUBINIREN TEOREMA ETA ALDAGAI-ALDAKETA: Integral iteratuak, Fubiniren teorema, multzoen transformazioa, aplikazio lineal eta ez-linealen bidezko transformazioak, aldagai-aldaketa, koordinatu polarrak, esferikoak eta zilindrikoak.
7. FUNTZIO BEKTORIALEN KALKULU DIFERENTZIALA: Bektore-eremuaren definizioa, fluxu-lerroa, gradienteak, konbergentzia eta errotazionala. Espazio euklidearreko kurbak, ukitzaila eta arku-luzera.
8. FUNTZIO BEKTORIALEN INTEGRAZIOA: Kurba-integralak, ibilbide-integrala, kurba norabidetuak, lerro-integrala,

parametrizazio-aldaketa. Gainazal parametrizatuak, azalera, funtzio eskalar eta bektorialen gainazal-integralak. Gainazal norabidetuak. Green, dibergentzia eta Stokesen teorema. Eremu kontserbakorrak.

9. FOURIER-EN SERIEAK: Fourierren koefizienteak, sinu eta kosinuen ortogonalitatea. Konbergentzia puntuala: Dirichleten nukleoa, Riemann-Lebesgueren lema. Erabilpena zenbait funtzioekin. Konbergentzia uniforme. Hurbilketa bestezbesteko kuadratikoa, Besselen desberdintza, Parsevalen identitatea.

METODOLOGIA

Eduki teorikoa klase magistraletan azalduko da, bibliografian dauden oinarrizko erreferentziak eta nahitaezko materialari jarraituz. Hori osatuko da proposatuko diren ariketako klaseekin (ikasgela-praktikak), non ariketak ebazteko ikasleak klase teorikoetan lortutako ezaguerak aplikatuko diren. Mintegietan irakasgaiaren edukiaren gai eta adibide adierazgarriak garatuko dira, gehienetan lehenago ikasleei emandakoak, beraiek lan egiteko eta ondoko gogoeta eta eztabaida berekin ekar dezaten.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	90	15	45						
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	135	22,5	67,5						

Legenda: M: Magistrala S: Mintegia GA: Gelako p.
GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p. GCL: P. klinikoak
TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Irakurri argibideak % 100

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Azterketa partzialak
=====

- * Bi azterketa partzial (haztapan erlatiboa: 2/5 eta 3/5), gutxienez nota finaleko %90a balioko duena.
- * Mintegietan parte hartzea, banakako lanak, kontrolak (nahitaez aukera guztiak ez) gehienez nota finaleko %10a.

Irakasgaia partzialen bidez gainditu ahal izateko partzial bakoitzeko azterketak eta kurtsoan zehar egindako lanak osatzen duten nota handiago edo berdin 5 izatea beharrezkoa da.

Azterketa finala
=====

- * Irakasgaiaren azterketa finala, gutxienez nota finaleko %90a balioko duena.
- * Mintegietan parte hartzea, banakako lanak, kontrolak (nahitaez aukera guztiak ez) gehienez nota finaleko %10a.

Ebaluzio jarraitua ez egitekotan, irakasleei unibertsitateak finkatzen duen epean jakinaraziz, azterketa finala: %100a.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

- * Irakasgaiaren azterketa finala: nota finaleko %100a.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

EGELA plataformaren bidez banatutako materiala:

- * Ariketak
- * Mintegiak
- * Ikasturteko notak

BIBLIOGRAFÍA

Oinarrizko bibliografia

- T.M. APOSTOL, Análisis Matemático, 2ª edición, Ed. Reverté, Barcelona, 1977.
R.G. BARTLE, Introducción al Análisis Matemático, Ed. Limusa, Mexico, 1980.
F. BOMBAL, L. RODRIGUEZ. G. VERA, Problemas de Análisis Matemático. V. 1,2.
W.H. FLEMING, Funciones de varias variables, Ed. CECOSA, México. 1969.
J.E. MARSDEN y M.J. HOFFMAN, Análisis clásico elemental, Addison-Wesley Iberoamericana, Wilmington, 1998
J.E. MARSDEN y A. TROMBA, Cálculo Vectorial, Ed. Addison-Wesley Iberoamericana, Buenos Aires, 1991.
J.M. MAZON, Cálculo diferencial: teoría y problemas, McGraw-Hill, 1997.
M. SPIVAK, Cálculo en variedades, Ed. Reverté, Barcelona, 1979.
N. PISKUNOV, Kalkulu Diferentziala eta Integrala, UEU, 2009.

Gehiago sakontzeko bibliografia

- W. RUDIN, Principios de Análisis Matemático, McGraw-Hill, 1980.
T. TAO, Analysis I, II, Hindustan Book Agency, 2006.

Aldizkariak

Interneteko helbide interesgarriak

- Mathematical Tripos: Part 1A Vector Calculus: http://www.damtp.cam.ac.uk/user/sjc1/teaching/VC_2000.pdf
Lectures on Integration of Several Variables: www.physics.nus.edu.sg/~phyteoe/mm4/m252.ps

OHARRAK

IRAKASKUNTZA-GIDA

2023/24

Ikastegia 310 - Zientzia eta Teknologia Fakultatea**Zikl.** Zehaztugabea**Plana** GMATEM31 - Matematikako Gradua**Ikastaroa** 2. maila**IRAKASGAIA**

26693 - Kurbak eta Gainazalak

ECTS kredituak: 9**IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA**

Irakasgai hau "Topologia eta Geometria Diferentziagarria" jakintza arloan agertzen da, "Topologia" eta "Kurba eta Gainazalen Geometria Globala" irakasgaiekin batera. Irakasgai honen helburua, espazioko kurbak eta gainazalak ikastea da, erabiliz horretarako kalkulu diferentziala eta integrala, eta topologia.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

GAITASUNAK

M02CM01 - Kurbak eta gainazalak ikasteko beharrezkoak diren tresna analitikoak eta topologikoak ezagutzea.

M02CM02 - Kalkulu diferentziala, integrala eta topologia euklidearra erabiltzeko gai izatea ariketa geometrikoen ebazpenetan.

M02CM03 - Kurba eta gainazalen teoria lokalaren oinarriko teorema ezagutzea, eta problema geometrikoak ebazteko erabiltzen jakiteas.

M02CM05 - Kurben teoria lokala ikasteko Freenet-en Triedroa erabiltzen jakitea. Kurben luzera, kurbadura eta bihurtura lortzeko gai izatea.

M02CM06 - Gainazaletan koordenatuen bidez jardutea. Gainazalen kurbadurak lortzen jakitea.

M02CM07 - Ikasitako kontzeptuak erabiltzea biraketa gainazalak, gainazal erregelatuak eta minimalak aztertzeko.

M02CM08 - Gainazalen bektore-eremu ukitzailekin eta normalekin lan egitea eta ulertzea zer den bektore-eremuen garraiaketa paraleloa gainazalen gaineko kurben zehar.

